

Edotafioa

argitaletxeaedo!

Edotafioa

argitaletxeado!

Aurkibidea

<i>Edotafoa</i>	9
<i>Argitaratutako liburuak</i>	21
<i>Eskertza</i>	47

Edotafioa

argitaletxeaedo!



Literola

Amaitu da.

Hitz hauekin argialetxea EDO!ren amaiera jakinarazi nahi dizugu.

Hau da ez da ospakizun bat, baina ez da hileta zeremonia bat ere.

Lerro hauek azken errituala dira, bizitzaz beteriko gutuna.

Izan ere, EDO! bizitzaz beterik egon den proiektu bat izan delako eduki baititu bizitzari dagozkion pozak eta tristurak:

lorpenak,

momentu ederrak,

momentu landerrak,

gordetzeko moduko irakaspenak,

nekeak

eta balizko ametsen eraikuntzak eta eraispenak.

Hasieran argi esan genuen: proiektu honek bi urte iraun behar baditu, bi urte iraun ditzala, eta ez da ezer gertatzen.

Mereziko du.

Ondo egongo da horrela ere.

Zortzi urte pasa dira lehen aldiz elkartu ginenetik.

Hamabost liburu.

Merezi izan du:

eta,

edo,

baina.

Argitaletxea EDO!ren lantaldean elkartu ginen lagunok
antzeko ibilbideak genituen:
mugimendu sozialak, kultur proiektuak..
guztiok ezagutzen genituen proiektu kolektibo eta militan-
teen penak eta gloriak,
guztiok erre izan ginen inoiz inon,
eta hala ere beste saiakera bat egitea deliberatu genuen.

Kolektiboki beste behin.
Porrot egiteko beste behin.

Aurreikusi genuen arriskua, eta azkenean hala gertatu da:

lan itzela izan da,
esperientzia bizia,
desio haragitu bat
bizipen zoragarria
lana antolatu,
berrantolatu eta
berberrantolatu dugu,
ardurak eta lan kargak
desorekatu dira
taldearen barruan,
bizitza proiektuak aldatu dira
taldekideen artean,
lantaldea zabaltzen saiatu gara,
ez dugu asmatu,
gero eta nekatuago egon gara,
zaindu egin ditugu egileak eta liburuak
baina ez gure burua,
energia faltatu zaigu talde barruan
elkar mimatzeko,
ez dugu jakin etorkizunera bultzatzen
amaitutzat eman dugu bidea

garaiz eta ongi bukatzeari garrantzitsuago iritzi diogu,
hala-moduz jarraitzeari baino.

Kulturaren alde porrot egiteko prest egon ginen,
eta hala izan da zinez:
maitasunez, kulturaren alde egin dugu porrot.

Nahiz eta numeroak,
nahiz eta liburuen harrerak,
nahiz eta harpidedunen fideltasunak,
nahiz eta musu-truk lan egin duen
kolaboratzaileen sare zabalak,
nahiz eta agortutako edizioak,
nahiz eta liburuek egindako bideak,
nahiz eta jendeak behin eta berriz aitortu dizkigun
hutsune betetzeak,
nahiz eta kontrakoa esaten tematzen zaizkigun,

ez da porrota izan, porrot eder bat izan da
bizitza propioa duten hamabost liburu ekarri ditugu
plazara,
hamabost liburuetan hamaika sortailek,
—eta hamaika hitzaurregilek, hitzostegilek eta azal-egilek—,
beren ahotsak zabaldu dituzte ezohiko ikuspegietatik:

pentsamendu kritikoa,
begirada artistikoa,
itzulpengintza,
antzerkia.

Geratu zaizkigu landu gabekoak ere:
poesia,
narrazio gehiago,
pentsamendu kritiko gehiago,
begirada artistiko gehiago.

Hori izan zen hastapenean EDO!ren ametsa:

bultzatzaileok sentitzen genituen hutsuneak
betetzen saiatzea,
beste era bateko liburuentzako espazioa eta
publikoa egon daitekeela erakustea,
proiektu kolektibo bat eratzea.

Azken horretan egin dugu huts.
baina ez erabat
baina, ez beste guztian.

Esperientzia guztiak osatzen dute kultura,
eta hori iraupena baino garrantzitsuagoa da,
emaitzak zenbakietan kontabilizatzea baino
garrantzitsuagoa.

EDO! izan den kultur-esperientzia brutala transmititu nahi
genuke hitz hauetan, ozen, pozik, eta nekeak eta tentsioak
ukatu gabe:

proiektuak hasi eta amaitzen dira,
pertsonek bezala.

Bizitzari dagokio.

Badakigu ezer ez dela betirako,
baina badakigu, baita ere, ezer ez dela alferrik,
ezer ez dela debalde.

Ezer ez baita bukatzen desagertzeko, hauts bihurtzeko;
ahalegin kolektibo guztiak,
ideia partekatu guztiak,
hazi modura lokartuta itzaltzen dira,

aurrerago,
beste nonbait,
beste noizbait,
beste batzuek,
ereiten jarraitzeko.

Literaturak hori du alde: argitaletxeak amaitu arren,
liburuak geratzen dira.
Eta liburuak haien bizitza propioa luzatzen tematzen dira,
egoskor:
arretaz jarraituko dugu, aurrerantzean ere, haien bidea.

Baina bada proiektuen iraupena baino garrantzitsuagoa
den zerbait:
proiektua osatzen duen jendea.
Inportanteagoa da jendea, proiektua irauaraztea baino.
Horregatik diogu

agur
eta eskerrik asko

EDO! izan den esperientzia honi,
esperientzia honen parte izan den jende guztiari.
Taldeak azkenerako ardura batzuei
aurre egiteko arazoak izan baditu ere,
kolaboratzaile eta laguntzaile sare zabal,
trinko eta estimatu bat izan du, eta du oraindik.
Haien guztien konpromiso txikiak,
ekarpen handiak eta borondatezko lana gabe

EDO! ez zen posible izango,
eta eskerrak eman nahi dizkiegu horregatik.

Proiektuarentzat funtsezko izan dira harpidedunak ere.
Haien leialtasunari mila esker eta mila zorion eman nahi dizkiegu,
ekarpen horiek guztiak gabe ezinezko izango zelako EDO!k
argitaratu dituen liburuak argitaratzea.

Era berean, eskertu nahi ditugu beren lana EDO!rekin
argitaratzea erabaki duten

egileak,
sortzaileak,
irudigileak,
itzultzaileak.

Eskerrik asko zuen konfiantzarengatik eta musu-truk
egindako lanarengatik.

Aurreikusit,
aipatu,
aitortu genuen gerta zitekeena.
Bagenekien.
Eta hala ere ezin izan dugu saihestu.

Eta.

Edo.

Baina.

Ondoren etorriko diren proiektuei gutuna ere badira lerro
hauek, etorkizuneko orainetara jaurtitako mezua:
aurrez iragarritako bizitza izan du heriotza honek.
Eta ez zaigu damutzen.

Ederra izan zen EDO!ren hasiera, izan zenez:
denbora gehiago pasatu genuen proiektuari buruz hitz
egiten, ostera proiektua bera martxan jartzen baino.

Eztabaida ideologikoez hondo sakona izan zuten, EDO!ren hamar printzipioak definitu genituen arte:

Euskalduna.
Autofinantzatua.
Borondatezko lanean oinarritua.
Adostasuna, talde lanaren oinarri.
Edukiei jarriz arreta,
 salmentari beharrea.
Gizarte eragilea.
Pentsamendu kritikoa.
Independentea.
Kalitatea eta seriotasuna.

Zenbat eztabaida ordu izan genuen puntu bakoitzeko!
Hori izan zen esperientzia honetako lehen poza:
 itxura batean,
 lehen begi kolpean,
 lantaldea oso
 bariopintoa zen,
 anitzegia askoren iritiz.

Eztabaidaren maila beti altua izan da koordinazio bileretan, liburu bakoitzaren edizio lana egiteko sortutako lantaldeetan. Adostasuna izan da argia gehien-gehienetan, baina, noski, ez beti.

Errespetua eta negoziatioari dagokionez urte hauetako prozesua eredarria izan da, edo gutxienez, proiektuak kudeatzeko orduan beste modu batzuk lantzeko orduan ariketa ikaragarria.

Hasierako intuizio askoren baliozkotasuna bete eta konfirmatu egin zaigu:

Abiadura handiko lanik egingo ez genuela
esan genuen,
eta hala izan da, nahiz eta batzuetan abiadura ez
baina erritmo apur bat gehiago behar izan den.

Aniztasun ideologikoaren garrantzia nabarmendu
genuen; enpatia handiz jokatu du une oro
lantaldeak, baina batzuetan erabakiak hartu behar
izan dira, ez guztion gustukoak normala denez,
baina ez da hori arazo izan elkarrekin lanean jarraitzeko.

Galera asmorik gabeko elkarteak izan nahi genuela
aipatzen genuen umorez eta zintzotasunez: bete
egin da, baina musu-truk, maitasunez,
eta ez diru-truk, egin delako lan atal guztietan.

Baina bila dezagun autokritika sakonagoa:

EDO! gabezien eta hutsuneen katalogoa erakusten
saiatu da haren eskaintza. EDO!k hutsune gehiegi,
fronte gehiegi bete nahi zituen, eta ez da posible
izan guztiak sakontasunez (eta kantitatez) asetzea.

EDO!k ez du galerarik izan, baina langilerik
ez duelako. Soldatak edo enpresa egiturak
mantendu nahi diren kasuetan zaila izaten
jarraituko du gauza batzuk publikatzea. EDO!ren
liburuak saldu egin dira, etekina eman dute berez,
baina ez dagoelako enpresa egiturarik, musu-truk
egin delako lan.

Zauriak ere baditugu, sarritan ez dugulako
jakin nola urratu genero-rolak lan-banaketan eta
lan-dinamikan

EDO! borondatezko lanari esker izan da posible funtsean, baina horrek berak jarri dio iraugintze data, lantaldea berritzeko zailtasunengatik eta nekeengatik.

Eta,

edo,

baina,

jarrai dezagun pozak zenbatzen:

ustez publikorik ez duten liburuak saldu eta batzuetan agortu egin dira.

Liburu batzuk berrargitaratu behar izan ditugu, liburu-dendetako salmentak hasieran espero genuena baino askoz handiagoak izan direlako.

Edo, esan dezakegu bestela, poza sortzen digutela azken urteetan kulturgintzaren plazara sortu diren mugimenduek:

antzerkiaren arloan argitalpen
ildo berriak sortu dira,
feminismoaren arloan
bilduma eta liburu berriak.

Begikoak bilduma urratzailea izan da:
egun ikusi ikusten dira komikigintza edota album
ilustratuen arloan ahaleginak,
baina oraindik ere arte ikuspegi batetik landutako liburuen
arloan hutsune handia ikusten dugu euskaraz,
gustatuko litzauguke bilduma horren ahaleginak segida
izatea nolabait.

Porrotaz mintzatu gara, porrot ederraz,
baina agian beste modu batean formulatu behar genituzke
gogoetak eta galderak:

agian irautea bezain inportantea da irutea;

iraultza ez dadila irautza izan,

ez irautza hutsa bederen:

iraun gabekoaz dolu garen bezainbat gara poz
irundakoagatik.

Irunean irauin,

transmititu diezaiogun biharko urratsari gaurkoaren
bulkada.

Azken batean, pentsamendu kritikoak,
bizirik egongo bada, mugimenduan egon behar baitu beti.
Kultura mugimendua da.

Kultur proiektuek pentsamenduaren mugimendu kritikoa
lagundu behar lukete.

Garrantzitsua deritzogu pentsamendu masa kritiko hori

etengabe mugimenduan egoteari,

gorputzetik gorputzera,

proiektutik proiektura kutsatzen den izurrite eder bat bezala.

Kultur proiektuak izan daitezela izurrite eder horren
eroaleak.

Kutsatu gara besteen proiektuez, kutsatzen saiatu gara
geurea.

EDO! momentu baten parte izan dela sentitzen baitugu.

Mendea hasi zenetik euskal literaturaren testuinguruan
errepikatzen ari den momentua:

EDO!ren ideiekin bat doazen proiektuak sortu eta

desagertu direla ikusi dugu,

liburu-denda eredu berriak ezagutu ditugu,

argitaletxe berriak sortu eta desegin dira,

irakurleen ekarpenetan oinarritzen direnak,

publikazio sail berriak sortu dira,
itzalean egon diren literatura,
pentsamendu eta sormen liburuak
argitara ateratzeko egitasmoak ezagutu ditugu,
hasi eta bukatu direnak,
edo jarraitzen dutenak,
edo atzo ernatu direnak...

Dozenaka proiektu sortu, garatu eta desagertu dira
EDO!rekin batera

kulturgintza kudeatzeko ereduak berrikusteko deia,
aliantza eta mugimendu kultural berrien saretzea,
iraungitze data izan arren dagozkien momentuan
eta lekuan eragile izan nahi duten proiektuen lana,
pentsamendu kritikoaren bidezko transmisioa.

Kalean bada zerbait, gose edo egarri bat, EDO!ren sorreran
bazegoena eta urte hauetan guztietan gero eta nabarmenago
egin dena.

Hor, poza. Hor, porrotaren plazera.

Pozik sentitzen baikara momentu hori beste hainbat
pertsona eta proiekturekin partekatu dugulako.
EDO! mugimendu horren parte izan da, kulturgintza eta
literaturgintza ulertzeko ikuspegi batzuen parte.
Testuinguru horretan sumatzen diren kezka, gogoeta,
ekinbide eta mugimenduen parte.
EDO! momentu horren parte izan da, eta momentu hori ez
da amaitu, garatzen jarraitzen du.
EDO!k bere ekarpena egin dio momentu horri, eta bere
ibilbidea amaitutzat ematen badu ere, EDO!n parte hartzen
dugunok momentu hori bizitzen eta konpartitzen
jarraituko dugu.

Gure esperientzia edo jakintza apurrak konpartitzeko prest gaude halaber, haien bila gerturatu nahi duenaren eskura daude.

Amaiera guztiak dira beste zerbaiten hasiera.

Momentu berrien bila bagoaz.

Eskerrik asko handi eta bero bat, modu batera edo bestera EDO!ren esperientzian parte hartu duzuen guztioi.

2017ko ekainaren 30ean,

EDO!ren lantaldea

Argitaratutako
liburuak

Literola saila

Genero ariketak



Izenburua: Genero-ariketak. Feminismoaren subjektuak

Koordinatzaileak: Isa Castillo eta Iratxe Retolaza

Ezaugarriak: artikulua-bilduma. 318 orrialde. 14 x 21 cm


Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2013ko uztaila

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-5-1

Dalloway Andrea



Izenburuak: Dalloway Andrea eta Emakumeen lanbideak edo Etxeko Aingerua hiltzea

Jatorrizko izenburuak: Mrs Dalloway eta Professions for women or Killing the angel in the house

Egilea: Virginia Woolf

Itzultzaileak: Itziar Diez de Ultzurrun eta Ana I. Morales

Azala: Eider Salaberria

Ezaugarriak: Nobela eta saiakera

272 orrialde. 14 x 21 cm. Josia

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2014ko iraila

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-7-5

Hain gutun luzea



Izenburua: Hain gutun luzea

Jatorrizko izenburuak: Une si longue lettre
(1979, Le serpente à plumes)

Egilea: Mariama Bâ

Itzultzailea: Iokin Otaegi

Zuzentzaileak: Karmele Etxabe eta Amaia Apalauza

Azala: María de Bernardo

Hitzostea: Josune Muñoz

Ezaugarriak: Nobela. 149 orrialde. 14 x 21 cm. Josia

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2015eko martxoa

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-9-9

Erleak, satorrak, beleak



Izenburua: Erleak, satorrak, beleak

Egilea: Gaizka Sarasola

Zuzentzaileak: Karmele Etxabe eta Amaia Apalauza

Azala: Iratz Inziarte

Ezaugarriak: Antzerkia. 108 orrialde. 14 x 21cm.

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2016ko apirila

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-944108-2-6

Maite ditut maite



Izenburua: Maite ditut maite. Trasmisioa XX. mendeko Euskal Herriko artean

Egilea: Ismael Manterola Ispizua

Zuzentzailea: Leire Arano Amas

Azala: Aran Santamaria

Hitzostea: Xabier Gantzarain Etxaniz

Ezaugarriak: Saiakera. 288 orrialde. 14 x 21cm.


Hizkuntza: Euskara.

Argitalpen data: 2017ko otsaila.

Lizentzia: Creative Commons.

ISBN: 978-84-944108-3-3

Edotafioa



Izenburua: Edotafioa

Egilea: argitaletxeaedo!

Xortak saila

Hormako paper horia



Izenburua: Hormako paper horia

Jatorrizko izenburua: The Yellow Wallpaper

Egilea: Charlotte Perkins-Gilman

Ezaugarriak: Narrazio laburra. 10 x 16 cm.


Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2012ko azaroa

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-0-6

Eta Karmele?



Izenburua: Eta Karmele?

Egilea: Samara Velte

Ezaugarriak: Antzerkia. 10 x 16 cm.


Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2012ko abendua

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-3-7

Txalorik ez, arren



Izenburua: Txalorik ez, arren

Egilea: Harkaitz Cano

Ezaugarriak: Saiakera. 10,7 x 16 cm.

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2014ko otsaila

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-4-4

Begikoak saila

Zu ikusteko bidean



Izenburua: Zu ikusteko bidean

Egilea: Gari Garaialde

Ezaugarriak: Argazki liburua. 48 orrialde. 24 x 16 cm.

Tapa gogorra

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2012ko azaroa

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-1-3

Alderik alde



Izenburua: Alderik alde

Egilea: Maite Gurrutxaga

Ezaugarriak: Ilustrazioa eta collage-a
64 orrialde. 13,8 x 8,8 cm. Tapa gogorra
Kolorea eta txuri beltza

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2012ko abendua

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-2-0

Maite dut



Izenburua: Maite dut

Egilea: Lorena Martínez Ornoz

Ezaugarriak: Collagea. 12 x 12 x 2 cm.


16 koloretako fitxa (+1 poema), kutxa batean bilduak

Hizkuntza: Euskara

Argitalpen data: 2014ko ekaina

Lizentzia: Creative Commons

Falta (ez) diren gauzak



Izenburua: FALTA (ez) diren gauzak

Egilea: Aina Lasa Perez

Ezaugarriak: Artista liburua. 40 orrialde. 29,6 x 22 cm.

Hizkuntza: euskara

Argitalpen data: 2014ko azaroa

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-940489-8-8

Barrukoa



Izenburua: Barrukoa

Egilea: Eider Eibar


Ezaugarriak: Album mutua. 30 orrialde. 32 x 16cm.

Argitalpen data: 2015ko ekaina

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-944108-0-2

Bidea



Izenburua: Bidea

Egileak: Pello Añorga (idazlea) eta Concetta Probanza (ilustratzailea)

Ezaugarriak: Liburu ilustratu (album) poetikoa
40 orrialde. 17 x 24cm

Argitalpen data: 2015eko abendua

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-944108-1-9

Udako arrats eternala



Izenburua: Udako arrats eternala

Egilea: Diego Aldasoro

Ezaugarriak: Argazkia

49 irudiko seriea (5 x 7,5 cm bakoitza) tira batean tolestuta (245 x 7,5 cm), 6 postal (5 x 7,5 cm bakoitza) eta sarrera testua, guztia poxpolo kutxa batean bildua (5,7 x 8,3 cm)

Argitalpen data: 2017ko maiatza

Lizentzia: Creative Commons

ISBN: 978-84-944108-4-0

Eskertza

Edo! lagun askoren elkarlanak egin du posible. Mila esker modu batean edo bestean borondatezko lanaren bidez Edo!-ren parte izan zareten guztioi itzulpenetan, zuzenketan, banaketan, azalgintzan, maketazioan, banaketan, aurkezpenetan:

Ahotsenea, Ainara Lasa Perez, Ainara Sarasketa Alberdi, Ainhoa Alberdi, Ainhoa Güemes, Aitziber Alonso, Allende Arnaiz, Amaia Alvarez Uria, Amaia Apaulaza, Amaia Serrano, Amaia-Aimar Elosegi, Ana I. Morales, Anari, Anti liburu-denda, Apal denda, Aran Santamaria, Arteka liburu-denda, arteliburu21, Asier Sarasola, Beatriz Preciado, Charlotte Perkins-Gilman, Concetta Probanza, Danele Sarriugarte, Diego Aldasoro, Eider Eibar, Eider Salaberria, Ekhi Vegas, Eresbil, Gaizka Sarasola, Galder Perez, Garazi Arrula, Gari Garaialde, Garoa liburu-denda, Gorka Setien, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Harkaitz Zubiri, Hernaniko Biteri Kultur Etxea, Hernaniko Karbonera, Hontza liburu-denda, Iban Gurrutxaga, Ibon Egaña, Idoia Beratarbide, Imanol Epelde, Iokin Otaegi, Iraia Elias, Irati Arratibel, Iratxe Retolaza, Iratz Inziarte, Iratzar liburu-denda, Irene Hurtado, Isa Castillo, Isa Diaz, Ismael Manterola, Itsaso Gutierrez, Itziar Diez de Ultzurrun, Itziar Ziga, Iñaki Segurola, Iñigo Roque, Javier Sáez, Joseba Roldán, Josebe Alkorta, Josune Monton, Josune Muñoz, Judith Butler, Karmele Etxabe, Katakarak liburu-denda, Kattalin Miner, KaXilda liburu-denda, Larraitz Garmendia, Leire Arano, Literaturia, Lorena Martinez Oronoz, Louise Michel liburu-denda, Maite Gurrutxaga, MalaQoda taldea, Marga Kareaga, Mari Luz Esteban, Mariama Bâ, Marta Luxan,

María de Bernardo, Medeak, Mikel Ayerbe, Mikel Etxaburu, Mikel Peruarena, Miren Agur Meabe, Oier Guillan, Pello Añorga, Raquel (Lucas) Platero, Saioa Ruiz, Samara Velte, Skolastika, Virginia Woolf, Virginie Despentes, Xabier Gantzarain, Zaldiko Maldiko elkarte, Zapateneo, Zarauzko Bidea Galeria, Zazpi t´erdi, Zuloa liburu-denda.

argitaletxea **edo!**

Euskara. EDO!-k euskarazko lanak argitaratu ditu.

Autofinantzatua. EDO! diru irabazi asmorik gabeko egitasmoa izan da. Lan batzuk ordaindu behar izan dira, baina ahalegina egin dugu bazkideen borondatezko lanean oinarritzeko.

Borondatezko lana. EDO! Borondatezko lanean oinarritu da; bazkideak eta lankideak izan dira proiektua bultzatu dutenak, eta harpidedunak izan dira proiektuaren oinarria.

Adostasuna. EDO! adostasunean oinarritu da. Adostasuna izan da talde lanaren oinarria, eta prozesuek eskatzen zuten erritmoen arabera lan egin nahi izan du.

Edukiak. EDO! liburua eta literatura merkantziaren logikatik ateratzen saiatu da. Edukiei jarri die arreta, salmentari beharrea.

Gizarte eragile. EDO!-k zerbitzu publiko gisa ulertu du bere lana. Kultur eragile soilik ez, gizarte eragile ere izan da.

Pentsamendu kritikoa. EDO! pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa sustatzeko tresna izan da.

Independentea. EDO! independentea izan da alderdi politiko, gizarte mugimendu, erakunde publiko eta kultur industrietatik.

Kalitatea eta seriotasuna. EDO!-k egiazko edizio lana egin du argitaratutako lanekin eta publikazio berme guztiak eman dizkio egileari.

